

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko uztailaren 29ko erabakia, oporraldian zereginak eskuordetzeari buruzkoa

2019ko ekainaren 21eko eta 26ko eta uztailaren 11ko erabakien bitartez, bere eskumen zenbait kide anitzeko organo horretako kide diren zinegotziei eskuordetzea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 127. artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Ikusirik oporraldian uste izatekoa dela Tokiko Gobernu Batzarreko zenbait kide absente izango direla, alkate lehendakariak, udal-administrazioaren funtzionamenduak behar bezala jarraituko duela bermatze aldera, erabaki proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari.

Erabaki-proposamena:

Oporraldian, eskuordetu zitzaizkielako legez Tokiko Gobernu Batzarrari dagozkion zereginak egiten dituzten kide anitzeko organo horretako kideak absente badira, zeregin horiek alkateari edo oporraldian alkateorde ari denari eskuordetzea.

Azken xedapena. Datoren egunean jarriko da indarrean erabaki hau, ALHAOn zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 29an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE